



JUSTIZIA ETA GIZA ESKUBIDEEN
SAILA
Justizia Sailburuordetza
Justizia Administrazio Zuzendaritza

DEPARTAMENTO JUSTICIA Y
DERECHOS HUMANOS
Viceconsejería de Justicia
Dirección de la Administración de Justicia

EBAZPENA, 2026EKO MARTXOAREN 5EKOA, JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIARENA, 2025EKO EKITALDIARI DAGOKION EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA ADMINISTRAZIOAREN ZERBITZURA DIHARDUTEN FUNTZIONARIOENTZAKO GIZARTE-EKINTZAKO LAGUNTZAK.

Abuztuaren 31ko 223/2010 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten Justizia Administrazioko funtzionarioak Euskal Administrazio Orokorreko funtzionarioekin nola parekatu arautzeko eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren eta CCOO, ELA, CSI/CSIF, LAB eta UGT sindikatuen artean Bulego Judizial eta Fiskala ezartzeko IV. Akordioa onartu zen. Bada, akordio horrek indarrean jarraitzen du, eta 41. artikuluan ezarritakoa betez, gizarte-ekintzako laguntzak iragartzen dira 2025eko ekitaldirako.

I. KAPITULUA. OINARRI OROKORRAK

1. artikulua. Laguntzen helburua eta edukia

1. Ebazpen honen helburua honako hauek arautzea da: Gizarte-ekintzako laguntzen edukia, kudeaketa-prozedura, erabakia eta ordainketa. Ondoren zehazten dira laguntzen modalitateak:

- Laguntza protesikoa eta odontologikoa.
- Desgaitasunen bat duten pertsonei arreta emateko laguntza.
- Osasun-sistema publikotik kanpo dauden tratamendu eta ebakuntza medikoetarako laguntza.
- Generoa berresleitzeko kirurgiarako laguntza.
- Ugalkortasun-tratamenduetarako laguntza
- Salbuespenezko laguntzak.

Modalitate desberdinak metatu daitezke. Laguntzak 2025.urtean benetan egindako gastuei dagozkienak izango dira, hainbat urtetan hortz-protesien tratamendu jarraituaren kasuan izan ezik (11.1.a artikulua). Kasu horretan, diruz lagundu ahal izango dira 2024ko eta 2025eko ekitaldietan ordaindutako gastuak, baldin eta aurreko deialdian laguntzarik jaso ez badute.

2. Gertaera eragile batek ezin izango du laguntza-modalitate bat baino gehiago eragin.

3. Fakturak jaulki diren ekitaldia ez den beste batean ordaintzen badira, ordainketa egin den data hartuko da kontuan.

2. artikulua. Laguntzen zenbatekoa

1. Likidatzen den ekitaldirako erabilgarri dagoen zenbatekoa 66.000 eurokoa da.

2. Hauxe hartu beharko da kontuan laguntzak kalkulatzeko: behar bezala justifikatutako gastuek eskatzaileari edo, hala badagokio, familia-unitateari, dakarkioten galera ekonomiko pertsonala.

3. Kalte ekonomikoaren zenbatekoa hartuko da eskabideei erantzuteko atalasetzat. Eskatzailearen eta, hala badagokio, familia-unitatearen urteko ordainsari gordinen gaineko portzentaje batek zehaztuko du kasu bakoitzean, honako eskala honen arabera:

- 25.000 eurorainoko ordainsariak: % 3
- 25.001 eurotik 35.000 eurora: % 4

- 35.001 eurotik 45.000 eurora: % 5
- 45.001 eurotik 55.000 eurora: % 6
- 55.001 eurotik 65.000 eurora: % 7
- 65.001 eurotik 75.000 eurora: % 8
- 75.001 eurotik 85.000 eurora: % 9
- 85.001 eurotik 95.000 eurora: % 10
- 95.001 eurotik aurrera: % 11

Galera hori gutxituko da %2an eskatzailearen ardurapeko seme eta alaba bakoitzeko. Seme edo alaba horiek ez dira egon behar ebazpen honetako 3.3 artikuluan salbuetsita daudenen artean.

4. Ondorio horietarako, eskaera 3.3 artikuluan adierazitako pertsonetako batentzat egin bada, hau da, funtzionario eskatzaileaz bestelakoa bada, ahaidetasunaren egiaztagiriaz gain, familia-unitateko kide guztien 2025ko ekitaldiaren errenta-aitorpena (PFEZ) aurkeztu beharko da; edo bestela adierazi 2025eko ekitaldian jasotako urteko ordainsari gordin guztiak erantzukizunpeko adierazpenean (I. Eranskina).

Pertsona horiek PFEZaren aitorpena aurkeztu beharrik ez badute, baina edozein ordainsari mota jasotzen badute, dagozkien zenbateko gordinen erantzukizunpeko adierazpena (I. Eranskina) aurkeztu beharko dute.

Banantze edo dibortzio kasuetan, seme-alabek eragindako gastuetarako laguntza eskatzen bada, diru-sarreratzat hartuko da aitortutako mantenu-pentsioaren zenbatekoa, eta epaiaren eta dagokion hitzarmen arautzailearen kopia erantsi beharko da. Mantenu-pentsioa ordaintzen ez bada eta behar bezala egiaztatzen bada, Batzorde Teknikoak balioetsiko du pentsio horren zenbatekoa diru-sarreratzat hartu behar den ala ez.

Era berean, banantze- edo dibortzio-kasuetan, adingabeen zaintza eta jagoletza bi gurasoek partekatzen badute (zaintza partekatua), seme-alabek eragindako gastuen % 50 zenbatuko da laguntza kalkulatzeko arau orokor gisa. Ehuneko hori aldatu egingo da, baldin eta laguntza eskatzen duen pertsonak epaiaren edo ebazpen judizialaren kopia aurkezten badu. Bertan, guraso bakoitzaren gaitasun ekonomikoa kontuan hartuta, seme-alaben gastuez bestelako banaketa proportzionala ezartzen da.

Guraso bakarreko familien kasuan, zirkunstantzia hori dokumentu baten bidez egiaztatu beharko da.

Eskatutako laguntza ugalkortasun-tratamenduagatik denean 14.4.b) artikuluan eskatutako dokumentazioa erantsi beharko da.

5. Diferentzia hori kontuan hartuta emango dira laguntzak: behar bezala justifikatutako gastuen edo esleitutako zenbatekoaren eta galera ekonomikoaren zenbatekoaren artekoa, honako muga hauekin:

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa 3.000 €-koa izango da, odontologiarekin eta ortodontziarekin lotutako kasuetan izan ezik, kasu horietan laguntzaren gehieneko zenbatekoa 2.000 euro izango da; eta interesdunen borondatearekin zerikusirik ez duten ezohiko kasuetan izan ezik, 223/2010 Dekretuan araututako Batzorde Teknikoak baloratuko dituenak.

6. Eman beharreko laguntza guztiek artikuluko 1. paragrafoan aurreikusitako zenbatekoa gainditzen badute, laguntza horiek proportzionalki murriztuko dira, zenbateko horretara egokitzeko. Eman beharreko laguntza guztiak zenbateko hori baino txikiagoak badira, odontologiari eta ortodontziari dagozkien laguntzen zenbatekoak, bai eta aurreko puntuan aipatutako ezohiko kasuei dagozkienak ere, proportzionalki handitu ahal izango dira, 2.000 euroko muga gaindituta, zenbateko osora iritsi arte. Nolanahi ere, ezin izango da eman benetan deialdiarekin bateko egindako gastua baino laguntza-kantitate handiagorik.

7. Laguntza hauen aplikazio-eremuan sartutako bi pertsonak onuradun berberak badituzte, pertsona horietako batek bakarrik izango du onuradunen aldeko eskubidea. Kaltea zehazteko, halako kasuetan, bien urteko diru-sarrera gordin metatuak hartuko dira kontuan.

3. artikulua. Langile eremua

1. Laguntza jaso ahal izango dute Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako edozein organo judizial, fiskaltza edo zerbitzutako funtzionarioek, titularrek zein bitarteko funtzionarioek (seme-alabak edo senitartekoak zaintzeko eszedentzia-egoera barne). Zehazki, hurrengo kidego hauek jaso dezakete laguntza:

- Auzitegiko Medikuen Kidegoa.
- Prozesu eta Administrazio Kudeaketako Kidegoa edo Eskala.
- Prozesu eta Administrazio Izapidetzen Kidegoa edo Eskala.
- Laguntza Judizialeko Kidegoa eta Eskala.

2. 2025. urte osoan zerbitzurik eman ez duten langileek egindako eskaerei urte horretan lan egindako denboraren proportzioan erantzungo zaie. Horri dagokionez, Justizia Administrazioan, ekitaldi horretan eta kidego eta eskala horietan, emandako zerbitzuak lan egindako denboratzat hartuko dira. Beraz, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpoko zerbitzuen kasuan, egindako zerbitzuen ziurtagiriarekin batera, eskatzailearen PFEZ aitortpena aurkeztu beharko da, eta, hala badagokio, beste onuradun batzuen; edo, bestela, haiek 2025eko ekitaldian jasotako urteko ordainsari gordin guztien erantzukizunpeko adierazpena (I. Eranskina).

3. Laguntzak emateko Justizia Administrazioaren langileari eta haren ezkontideari, izatezko bikotekideari (izatezko Bikoteen Erregistroan inskribatuta) eta seme-alabei eragiten dieten egoera eta inguruabarrek eragindako eskariak hartuko dira kontutan.

Seme-alabei dagokienez ondorengo salbuespenak egongo dira:

- a) Laguntzen xede den gertaera eragilea gertatu den egunean 25 urte beteta dituztenean, salbu eta erabateko mendekotasuna duten desgaituak badira.
- b) Seme-alabak beste familia-unitate batekoak izatea.
- c) Likidatzen den ekitaldian, lanbide arteko gutxieneko soldata baino handiagoak diren urteko lan-errentak jasotzea, norberaren kontura zein besteren kontura.

4. artikulua. Izaera pertsonaleko datuak

Eskabidean agertzen diren izaera pertsonaleko datuak *Justizia Administrazioako langileak* izeneko tratamendu-jardueran tratatu eta sartuko dira. Justizia Administrazioako Zuzendaritza da jarduera horren arduraduna. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legeak hala behartu ezean.

Eskatzaileek eskubidea izango dute datuetara irispidea izateko eta haiek zuzentzeko, ezerezteko eta eramateko, datuen tratamendua mugatzeko eta tratamenduari aurka egiteko, bai eta datuen tratamendu automatizatu hutsean oinarritutako erabakien jomuga ez izateko ere. Eskubide horiek erabiltzeko, hauengana jo behar dute: Justizia Administrazioako Zuzendaritza, Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz, eta Datuak Babesteko Ordezkaria, ddp-dbo@euskadi.eus. Era berean, eskatzaileek eskubidea dute erreklamazioa jartzeko Datuak Babesteko Euskal Bulegoan www.avpd.euskadi.eus, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera.

5. artikulua. Eskabideak eta dokumentazioa

1. Interesdunek ezarritako eredu ofizialaren eskabidea aurkeztu beharko dute behar bezala beteta. Justiziako langilearen atarian deskargatu daiteke ereduak. (II eranskina)

2. Eskabideekin batera, laguntza-modalitate bakoitzean eskatutako jatorrizko dokumentazio espezifikoak aurkeztu beharko da. Ez dira onartuko zuzenketak edo zirriborroak dituzten agiriak. Salbuespen gisa, fotokopia sinpleak onartuko dira jatorrizko dokumentuak aurkeztea ezinezkoa dela justifikatzen denean. Erkidego honetan ofizialak ez diren hizkuntzetan idatzitako jatorrizko dokumentuekin batera zinpeko itzulpena aurkeztu beharko da.

3. Aurkeztutako agiriak egiaztatu eta argitzeko, Administrazio honek agiri gehiago eskatu ahal izango dizkie eskatzaileei.

4. Familia-unitateko kide guztien PFEZaren aitortpena ez aurkezteak, Foru Ogasunak edo Zerga Agentziak emandako PFEZaren aitortpena aurkezteko betebeharrak ez izatearen ziurtagiria ez aurkezteak edo, halakorik ezean, horri buruzko erantzukizunpeko adierazpena ez aurkezteak, edo, hala badagokio, epaiaren eta dagokion hitzarmen arautzailearen kopia ez aurkezteak, berekin ekarriko du eskatzailearen ezkontideari, seme-alabei dagozkien gastuen balioespena baztertzea.

6. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea eta lekua

Eskabideak aurkezteko epea, egiaztagiriekin batera, **2026eko martxoaren 5etik martxoaren 25era** bitartekoa izango da, biak barne. Eskabideak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Erregistro Elektronikoko Orokorraren bidez bakarrik aurkeztu ahal izango dira (<https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa>), Justizia eta Giza Eskubideen Saileko Justizia Administrazioko Zuzendaritzari zuzenduta.

7. artikulua. Kudeaketa-prozedura

1. Deialdi honi dagozkion argitalpenak Justiziako langilearen atariaren (EIZU) bidez kudeatuko dira.

2. Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, argitaratuko da Justiziako langilearen atarian barematuak izateko onartuak, ez onartuak eta hala badagokio, zuzendu beharreko dokumentuen eskabideen zerrenda. Ondorioz, hamar egun balioduneko epea irekiko da dagozkion alegazioak egiteko edo eskatutako agiriak aurkezteko. Epe hori igaro eta zuzenketarik egin ez bada, interesdunak atzera egin duela ulertuko da automatikoki; horrenbestez, eskabidea baremazio-izapidetik kanpo geratuko da, eta, beraz, ez du laguntzarik jasoko.

3. Aurkeztutako alegazioak ebatzi eta baldintza guztiak betetzen dituzten eskabideak barematu ondoren, 223/2010 Dekretuan araututako Batzorde Teknikoak ebazpen-proposamena igorriko dio Justizia Administrazioko zuzendariari.

4. Alderdi medikoen balorazioa edo kontsiderazioa mediku akreditatuek kudeatuko dute osorik, haien babes egokia bermatzeko. Batzorde Teknikoak mediku horien aholkularitza izango du uneoro, beharrezkoak diren alderdi guztiak argitu, baloratu edo zehazteko.

5. Justizia Administrazioko zuzendariaren ebazpen batek, Justiziako langilearen atariaren argitaratuta, jasotako eskabideak onartu edo ukatuko ditu.

6. Ordainketa nominaren bidez egingo da, eta aurreikusita dago egungo aurrekontu-ekitaldiaren barruan ordaintzea, ezustekorik izan ezean.

7. Funtse lehenengo fasean agortuko da, 2.7. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskaeren diru-zenbatekoa zenbateko erabilgarriaren berdina edo handiagoa baldin bada. Errekurtso-fasean aldeko ebazpena ematen duten eskaerak 2026eko ekitaldiari dagokion Gizarte Funtsearen kargura ordainduko dira, baldin eta balizko errekurtsoen ebazpen-data aurtengo abenduko nominaren itxiera-data baino geroagokoa bada.

8. artikulua. Bateragarritasunak

Laguntza hauek bateragarriak dira nomina-aurrerakinekin, aurrerakin itzulgarrieekin edo nominan hileko atxikipena dakarren Administrazio Publikoaren beste edozein prestaziorekin.

9. artikulua. Bateriaezintasunak

1. Ebazpen honen xede diren laguntza-modalitateak jasoz gero, ezin izango da beste erakunde publiko edo pribatu batzuek helburu berberarekin araututako edo emandako laguntzarik jaso, salbu eta laguntza horiek txikiagoak badira; kasu horretan, aldea eskatu ahal izango da izaera eta zenbatekoa agiri bidez egiaztatzen badira.

2. Bestalde, laguntza hauek bateraezinak dira familia-unitateko beste kide bat atxikita egon daitekeen beste akordio eta hitzarmen kolektibo batzuetan kasu berberetarako aurreikusitako laguntzekin, salbu eta, aurreko paragrafoan bezala, laguntzak txikiagoak badira eta haien izaera eta zenbatekoa agiri bidez egiaztatzen bada; kasu horretan, aldea eskatu ahal izango da.

3. Aurreko paragrafoetan aipatzen diren kasuetan, interesdunek jasotako zenbateko txikiagoko laguntzen kantitatea kenduko zaio gizarte-ekintzako laguntzen aplikaziotik ondorioztatzen den azken zenbatekoari.

10. artikulua. Eskaerak faltsutzea

Datuak ezkutatzek, aurkeztutako dokumentazioa faltsutzek edo eskatutakoa ez aurkezteak laguntza ukatzea edo emandakoa kentzea ekarriko du; azken kasu horretan, itzuli egin beharko dira gizarte-ekintza gisa bidegabeki jasotako zenbatekoak, hargatik eragotzi gabe Zigor Kodean aurreikusitako erantzukizuna eta egon litezkeen erantzukizun zibil eta administratiboak.

II. KAPITULUA OINARRI ESPEZIFIKOAK

11. artikulua. Laguntza protesikoa eta odontologikoa

1. Modalitate honetan prestazio ekonomiko bat emango da, honako protesi hauek erosteko gastuak ordaintzeko:

a. Hortzetako tratamendu protesikoak:

- Hortzeria osoa
- Goiko edo beheko hortzeria
- Pieza solteak edo endodontzia
- Buxadurak edo enpasteak
- Implante osteointegratuak
- Ortodontzia
- Hortz-profilaxia

b. Begi-protesiak:

- Ikusmena zuzentzeko betaurrekoak, modalitate guztietan
- Kristalak berritzea
- Ikusmena zuzentzeko lentillak (mantentze-likidoak ez dira sartzen)

Kasu horretan, bost urtean behin bakarrik emango da laguntza, likidatzen den ekitaldiko gastuei erreferentzia eginez. Gastua monturak erostearen ondorio bada, gehienez 90 euroko laguntza emango da montura bakoitzeko.

Ez da laguntzarik emango eguzkitako betaurrekoak erosteko, salbu eta oftalmologoak aginduta nahitaez erosi behar badira.

c. Entzumen- eta fonazio-protesiak:

- Audifonoak
- Fonazio-aparatuak

d. Kirurgikoak ez diren beste protesi batzuk eta aparatu bereziak:

Osasun-sistema publikoaren edo mutualitate-sistema publikoaren prestazioen zerrendan agertzen ez diren edo berariaz ukatu diren protesi ez-kirurgikoek edo aparatu bereziek bakarrik jasoko dute laguntza (barne-zola ortopedikoak izan ezik).

2. Dokumentazioa:

- a) Legez eraturako jatorrizko fakturak. Faktura horiek establezimendu espezializatuak emango dituzte. Fakturan IFK/IFZ, data eta sinadura jaso beharko dira, bai eta erositako ondasunaren xehetasuna eta eroslearen izen-abizenak eta helbidea ere. Fakturen zenbatekoa ordainketa frogagiria, edozein bide erabilita.
- b) Kontzeptu beragatik beste erakunde publiko edo pribaturen baten laguntza jasoz gero, dagokion erakundearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, edo jasotako zenbatekoak zehazten dituen ebazpenaren kopia. Horretarako aurkeztutako dokumentazioaren kopia ere erantsi beharko da.

12. artikulua. Desgaitasuna duten pertsonak artatzeko laguntza

1. Desgaitasun fisiko, psikiko edo sentsozialen tratamendua, errehabilitazioa edo arreta berezia ordaintzeko gastuak finantzatzeko da laguntza-modalitate hau.

Era berean, ibilgailu motorduna eta bizilekua desgaitasunen bat duen pertsonaren premietara egokitzeko beharrezko gastuak eta/edo gorpil-aulkiak edo antzekoak erosteko gastuak biltzen ditu, eta desgaitasunaren arabera beharrezkoak izan ditzaketen beste batzuk.

2. Desgaituak pentsio ofizialen bat jasotzen badu edo haren gurasoak edo ezkontidea familia-prestazioren baten onuradun badira desgaitasunaren ondorioz, % 75 gastu lagungarrietatik deskontatuko da, egoitza-zentroetako edo etxean emandako laguntza-gastu iraunkorrak badira.

3. Dokumentazioa:

- a) Desgaitasuna egiaztatzen duen ziurtagiria, organo eskudunak emana.
- b) Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ziurtagiria, esleitu zaion pentsioaren edo familia-prestazioren zenbatekoa jasotzen duena, edo, bestela, ziurtagiri negatiboa.
- c) Ekitaldian zehar gaixoa artatzeko jasotako laguntzei buruzko ziurtagiria, egoitza finkatuta duen lurraldeko erakunde eskudunak emana (Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea - Arabako Foru Aldundia. Gizarte Ekintza Saila - Bizkaiko Foru Aldundia. Gizarte Politikako Departamentua - Gipuzkoako Foru Aldundia), edo, hala badagokio, ziurtagiri negatiboa.
- d) Gastuen fakturak, errehabilitazio-zentro edo -erakundeek edo desgaitasunen nahiz urritasunen tratamenduan, errehabilitazioan eta errehabilitazioan espezializatutako profesionalek emanak, eta, hala badagokio, joan-etorriek eragindako gastuak. Faturek 11.2.a) artikuluan adierazitako baldintzak beteko dituzte.

13. artikulua. Tratamendu eta ebakuntza medikoetarako laguntza

1. Tratamendu medikoek eta ebakuntza kirurgikoek eragindako gastuak finantzatzeko dira, baldin eta ez badira sartzen osasun-sistema publikoak edo mutualitate-sistema publikoak emandako laguntza mediko-farmazeutikoan, eta helburu bakartzat estetika ez badute.

Errehabilitazio-tratamenduen jarraipena ere diruz lagunduko da, baldin eta tratamendu horiek ez badaude sartuta osasun-sistema publikoak edo mutualitate-sistema publikoak emandako osasun-laguntzan; hasieran jasotako tratamenduaren pareko saio-kopurua finantzatzeko da, gehienez ere bi urterako, eta betiere tratamendu hori espezialitateko mediku batek gomendatzen badu.

Oftalmologiaren arloan, honako ebakuntza hauek sartzen dira:

- Sei dioptriako edo gehiagoko miopia-zuzenketak.
- Lau dioptriako edo gehiagoko hipermetropia-zuzenketak.
- Presbisia goiztiarraren zuzenketak, hau da, berrogei urtetik beherako pertsonetan.

2. Dokumentazioa:

- a) Organo eskudunak (Osakidetza, GSIN, Mutua ...) emandako ziurtagiria, honako hau egiaztatzen duena: eskatzaileari egin dioten tratamendu edo ebakuntza kirurgikoa ez dela sartzen prestazioan, eta ez dagoela araututa laguntza edo dirulaguntzaren xede gisa.
- b) Kontzeptu beragatik beste erakunde publiko edo pribaturen baten laguntza jasoz gero, dagokion erakundearen ziurtagiria aurkeztu beharko da, edo jasotako zenbatekoak zehazten dituen ebazpenaren kopia. Horretarako aurkeztutako dokumentazioaren kopia ere erantsi beharko da.
- c) Gaixotasunaren edo lesioaren diagnostikoari eta jasotako tratamenduari buruzko txosten medikoak. Ebakuntza oftalmologikoen kasuan, egindako zuzenketa eta graduazioa zehazten dituen txosten medikoak.
- d) Tratamendua eman duen zentro espezializatuak egindako fakturak eta faktura horien zenbatekoa ordaindu izanaren frogagiria (11.2.a artikulua).

14. artikulua. -Generoa berresleitzeko kirurgiarako laguntza.

1.-Tratamendu eta ebakuntza kirurgikoek eragindako gastuak finantzatu dira, baldin eta osasun-sistema publikoak emandako laguntza mediko-farmazeutikotik Kanpo badaude. Tratamendu horiek ez dute laguntzarik jasoko bazterketaren arrazoiak Genero Identitatearen Unitatearen edo antzeko organoaren gomendioan oinarritutadagoenean.

2.- Dokumentazioa:

- a) Erakunde eskudunak (Osakidetza, GSIN) emandako ziurtagiria, tratamendua edo kirurgia osasun-sistema publikoak edo mutualitate-sistema publikoak ematekin kanpo dagoela adierazten duena.
- b) Txosten medikoak. Informazio hori Zerbitzu Medikora bidali beharko da, txosten horietan jasotako datuen babesa bermatzeko, aurkeztutako eskabidearen kopia batekin batera, egindako bidalketa adierazita).
- c) Tratamendua eman duen zentro espezializatuak egindako fakturak eta faktura horien zenbatekoa ordaindu izanaren frogagiria (11.2.a artikulua).

15. artikulua. Ugalkortasun-tratamenduetarako laguntza

1. Tratamendu medikoa laguntza bidezko ugalketarako bada, egiaztatu egin beharko da tratamendu hori ez dagoela sartuta osasun-sistema publikoaren edo mutualista publikoaren prestazioetan.

2. Laguntza bidezko ugalketa-prozesuaren tratamendu farmakologiko espezifiko sartuko da laguntzen barruan, eta kanpoan geratuko da farmaziako beste edozein gastu.

3. Ugalkortasun-tratamenduak arrakasta izan badu, ezingo da berriz eskatu Gizarte Ekintzako funts honen laguntza helburu bererako.

4. Dokumentazioa:

- a) 13.2. artikuluan jasota daudenak.
- b) Eskatzailearen ezkontidearen edo erregistratutako izatezko bikotekidearen PFEZ aitortpena, edo, halakorik ezean, 2025eko ekitaldian jasotako urteko ordainsari gordin guztien erantzukizunpeko adierazpena (I. Eranskina).

PFEZren aitortpena aurkeztu behar ezean, baina edozein motatako ordainsaria jaso bada, dagozkion zenbateko gordinen erantzukizunpeko adierazpena (I. Eranskina) aurkeztu beharko da.

Ezkontiderik edo izatezko bikotekiderik erregistratuta ez ezean, horri buruzko erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da (I. Eranskina).

16. artikulua. Salbuespenezko laguntzak

1. Kontuan hartu ahal izango dira, baita ere, egoera ekonomiko pertsonal edo familiarrari kalte handia egiten dioten antzeko beste kasu batzuk, premia eta larritasun berezikoak badira. Halako kasuetan, 223/2010 Dekretuaren 41. artikuluko Batzorde Teknikoak proposamen bat egingo du aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren.

2. Dokumentazioa: eskaera egiteko arrazoiaren arabera dagokiona, eta arrazoi hori hobeto ulertzeko interesdunek egokitzen jotzen dutena. Fakturak aurkeztuz gero, 11.2.a) artikuluan adierazitako baldintzak bete beharko dira.

17. artikulua. Kotizazio-oinarria

Gizarte Funtsaren banaketatik eratorritako laguntzek Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorren kotizazio-oinarria osatuko dute, indarreko araudian aurreikusitako moduan.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Salbuespen gisa, diruz lagundu ahalko dira gaixoen eta laguntzaileen joan-etorrien gastuak, betiere joan-etorri horiek ezinbestekoak badira. 223/2010 Dekretuaren 41. artikuluko Batzorde Teknikoak aztertuko ditu inguruabar horiek kasuan-kasuan, dagokion proposamena egiteko, joan-etorrien distantziaren eta maiztasunaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2026eko martxoaren 5a

MARIA DOLORES MOVILLA RIVAS
JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA